

Erreterrian, 2020ko irailaren 4ean

Guraso agurgarriak,
Bikain egongo zaretela espero dugu.

Gure aldetik ikasturteari ekiteko indarberriturik gaude eta batik bat ikasleekin aurrez-aurre jarduteko ilusioarekin. Horiek horrela, Hezkuntzak hezur-haragizkoa izan eta pertsonen arteko harreman beroan eraikia izan behar duela irmoki sinesten dugulako, Covid-19 egoeraren eraginez 20/21 ikasturtea ez-ohiko egutegiarekin hasiko dugu.

Osasun-larrialdialdiarekiko arduraz eta zuhurtziaz jokatu eta ere berean telematikotasunak dakarren hoztasuna alboratuz saio presentzialak lehenetsi asmoz ikasturte hasiera era mailakatuan hasiko da. Litekeena da honek eskola-egutegia ikuspegi orokorretik berraztertu behar izatea, baina ikasturte gora-beheratsua aurreikusten denez egin beharreko doiketak aurreragorako utziko dira egoeraren bilakaeraren baitan.

IKASTURTE HASIERA DATA

IRAILAREN 9AN

- Musikako **banakako** instrumentu klaseak.
- Gradu Profesionaleko ikasgai guztiak (Banda/Orkestra izan ezik).

**Ezarritako protokoloaren baitan, irakaslea ikaslearen edo taldearen bila ate nagusira jaitziko da klase hasiera eta amaieran eta gurasoak ezingo dira eraikineratu sartu.*

IRAILAREN 23AN

- Musika, Dantza eta Antzerkiko gainerako saio/ikasgai guztiak.

Eskolan Covid-19ari aurre egiteko ondu den Kontingentzia Plana datozen egun/asteetan iritsaraziko zaizue (irakasleen bidez saio batzuk antolatuko dira) eta bertan aurreikusi diren hainbat neurriren berri helaraziko zaizue (higiene neurriak, sartzeko-irtete protokoloak eta antolaketa orokorra).

Kontziliazioa

Martxoan egoera delikatu honetan murgildu ginenetik **zaintzak** duen garrantzian azpimarra jarri izan dugu. Bide honetan beste ekarpen bat egin nahirik irailaren 9 eta 22a bitartean kontziliazio arazoa eduki zenezaketen gurasoei haurra dagokion saioaren ordu tartean Eskolara ekartzeko aukera luzatu nahi dizuegu.

Ikasturte hasiera mailakatu hasiz osasun krisia minimizatu nahi izan dela kontuan harturik, zintzoki jokatu eta aukera hau soilik benetako kontziliazio arazoa dagoen kasuetan



UDAL MUSIKA KONTSEBATORIOA
CONSERVATORIO MUNICIPAL DE MÚSICA
DANTZA ETA MUSIKA ESKOLA
ESCUELA DE MÚSICA Y DANZA

Erreterria Musikal Q20005361
Alfonso XI.aren kalea 6.20100 ERRETERRIA (Gipuzkoa)
musikal.erreterria.eus

ADMINISTRAZIOA: ✉ musikal@erreterria.eus
☎ 943 449633

PEDAGOGIA: ✉ musikalpedagogia@erreterria.eus
☎ 943 449646

baliatzeko deia egin nahi dizuegu. Behar hau duzuenek irailaren 8ko 13:00ak arteko tartea izango duzue info@erreterriamusikal.eus helbidera mezu bat igorriz. Mezuaren gai gisa “KONTZILIAZIOA” jarri beharko da eta ikaslearen izen-abizenez gain saioa adierazi beharko da.

Azkenik gogoan izan eskolako web orrialdean gurekin harremanetan jartzeko helbide zehatzak topa zenitzaketela.

Ondo izan, zaindu eta laster arte!
Koordinazio Pedagogikoa